



ARANTZAKO UDALA

OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2024.07.05

Ordua: 16:30

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko ordezkariaren ordezkia izendatzea.
3. Amekurrun, Argastaso eta Soraeta parajeetan oihan aprobetxamendua egiteko enkantea arautuko duen plegu arautzaileen eta prozedura abiaraztearen onespena.
4. 6. exekuzio unitatearen (5. poligonoko 558. eta 850. lurzatiak) aldaketa egituratzailea. Bigarren behin behineko onespena.
5. Pelle Tiki haurtzaindegirako hezitzailea kontratatzeko, aldi baterako lan kontratuarekin eta hautapen frogan bidez, deialdiaren eta prozedura abiaraztearen onespena.
6. Alkate Ebazpenak.
7. Jose Luis Iparragirre Salaverriak 5. poligonoko 830. lurzatiako etxebizitzako kanpoko aldean eskailerak egiteko auziaren inguruko erabakia.
8. Alberto Fagoaga Leitzak eta Maite Lataste Elizalde 5. poligonoko 440. lurzatiako etxebizitzako kanpoko aldean eskailerak egiteko auziaren inguruko erabakia.
9. Eskaerak eta galderak.



ARANTZAKO UDALA

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2024ko ekainaren 7ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

2. BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEKO ORDEZKARIAREN ORDEZKOA IZENDATZEA.

Idazkariak azaldu du 2024ko urtarrilaren 11ko ez-ohiko osoko bilkuran Itziar Arotzena Bergara izendatu zela Arantzako Udalaren ordezkari Bortziritako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean.

Alkateak adierazi du aipaturiko mankomunitateko bileretan Arantzako Udalaren ordezkaritza egonen dela bermatzeko suplentea izendatzea garrantzitsua dela..

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Leire Mitxelena Gamio izendatzea Bortziritako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Arantzako Udalaren ordezkariaren suplentea, titularra Itziar Arotzena Bergara izanik.

2.- Akordio hau Bortziritako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

3. AMEKURRUN, ARGASTASORO ETA SORAETA PARAJEETAN OIHAN APROBETXAMENDUA EGITEKO ENKANTEA ARAUTUKO DUEN PLEGU ARAUTZAILEEN ETA PROZEDURA ABIARAZTEAREN ONESPENA.

Amekurrun, Argastasoro eta Soraeta parajeetan oihan aprobetxamenduaren salmenta egiteko enkantea arautuko duen plegu arautzaile eta teknikoa azaldu ditu idazkariak.

Amekurrun, Argastasoro eta Soraeta parajeetako oihan aprobetxamenduaren salmenta 1. Lote bezala aterako da enkantera, prezioa hau izanik:

- 1. LOTEA: 121.227,62 €, BEZa kanpo.

Adierazitako oihan aprobetxamendu salmentaren enkantea egiteko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 143 eta 166 artikuluetan xedaturiko prozedura jarraitu beharra da. Halaber, Nafarroako Toki Araubidea Eguneratzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen Bortzgarren Xedapen Gehigarrian eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 88. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, enkantea Nafarroako Kontratazio Atarian eta udaleko iragarki taulan argitaratu daiteke.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ETA LEGEZKO KIDE KOPURUAREN GEHIENGO OSOA IZANIK, ERABAKI DU:



ARANTZAKO UDALA

1.- Amekurrun, Argastaso eta Soraeta parajeetan oihan aprobetxamenduaren salmenta egiteko enkantea arautuko duen plegu arautzaileak onestea.

2.- Aipaturiko oihan aprobetxamendu salmenta enkantearen plegu arautzaileak eta plegu teknikoak Nafarroako Kontratazio Atarian eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea, 15 egun baliodun, interesdunek euren eskaintzak aurkez ditzaten.

4. 6. EXEKUZIO UNITATEAREN (5. POLIGONOKO 558. ETA 850. LURZATIAK) ALDAKETA EGITURATZAILEA. BIGARREN BEHIN BEHINEKO ONESPENA.

Idazkariak azaldu du Jose Antonio Bereau Maciciorrek eta Margarita Vergara Vergarak sustaturiko 6. Exekuzio Unitatearen (5. poligonoko 558 eta 850. lurzatiak) aldaketa egituratzailea behin-behinean onartu zela 2024ko urtarrilaren 11ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez. Halaber, Nafarroako Gobernuko Hirigintza Atalak 2024ko martxoaren 18an egindako errekerimenduaren ondoren, eta sustatzaileak 2024ko ekainaren 14an zuzendutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, bidezkoa da aldaketa hori behin-behinean onartzea bigarren aldiz.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ETA LEGEZKO KIDE KOPURUAREN GEHIENGO OSOA IZANIK, ERABAKI DU:

1.- Jose Antonio Bereau Maciciorrek eta Margarita Vergara Vergarak sustaturiko 6. Exekuzio Unitatearen (5. poligonoko 558 eta 850. lurzatiak) aldaketa egituratzailea behin-behinean onartzea bigarren aldiz.

2.- Espediente osoa Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren arloko eskumenak dituen departamentuari igortzea, behin betiko onets dezan, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.2.d) eta 71.12 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

3.- Akordio hau sustatzaileei jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

5. PELLE TIKI HAURTZAINDEGIRAKO HEZITZAILEA KONTRATATZEKO, ALDI BATERAKO LAN KONTRATUAREKIN ETA HAUTAPEN FROGEN BIDEZ, DEIALDIAREN ETA PROZEDURA ABIARAZTEAREN ONESPENA.

Ikusirik 2024-2025 ikasturtean Pelle Tiki haurtzaindegi zerbitzua eskaini nahi de Arantzan, 10 hilabetez eta horretarako aldi baterako lan kontratuarekin hezitzaile bat kontratatu beharko litzakeela.

Ikusirik interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik Nafarroako toki entitateei emanen zaizkien diru-laguntzen deialdia onesten duen Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emandako martxoaren 7ko 251/2018 Ebazpenean xedaturikoa.



ARANTZAKO UDALA

Ikusirik Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 4580E/2024 Ebazpen bidez 2024. urterako aipaturiko deialdiaren gastua baimendu dela.

Ikusirik idazkariak prestaturiko deialdia, hezitzaile bat peoi kontratatzeke aldi baterako lan kontratuarekin eta hautapen frogan bitartez.

Ikusirik Igantzako Udaleko 2024ko aurrekontuan kreditu nahikoa dagoela aipaturiko langilearen aldi baterako kontratazioak egiteko.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- Pelle Ttiki haurtzaindegirako hezitzailearen kontratazioa arautuko duen deialdiaren oinarriak onartzea, aldi baterako lan-kontratu batekin eta hautapen frogan bidez.
- 2.- Deialdia toki-erakundeei interes orokorreko edo sozialeko lanak eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik emandako laguntzaren bidez egitea, bertan xedaturiko talde guztiei irekita (251/2018 Ebazpenean ezartzen denaren arabera eginda).
- 3.- Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan eta Leitzarana mailan irekitzea parte hartzeko eskabideak aurkezteko deialdia.
- 4.- Eskabideak aurkezteko azken eguna 2024ko uztailaren 30a ezartzea.
- 5.- Nafar Lansareri deialdi honen berri ematea, dagokion zundaketa egin dezan.

6. ALKATE EBAZPENAK..

2024ko 101etik 111ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

Halaber, hurrengo osoko bilkura abuztuan izanen dela jakinda eta ondorengo bi akordioak lehenbailehen hartzea komenigarria dela ikusirik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 81.2. artikuluan xedaturikoaren arabera, osoko bilkurara bertaratutako kideek, gehiengo osoa izanik, AHO BATEZ onartu dute hurrengo bi puntuak osoko bilkura honetan eztabaidatzea:

7. JOSE LUIS IPARRAGUIRRE SALAVERRIAK 5. POLIGONOKO 830. LURZATIKO ETXEBIZITZAKO KANPOKO ALDEAN ESKAILERAK EGITEKO AUZIAREN INGURUKO ERABAKIA.

Andoni Mitxelenak, hirigintzako zinegotziak, Jose Luis Iparraguirre Salaverriak 5. poligonoko 830. lurzatian kokaturik dagoen etxebizitzako kanpoko aldean eskailera egiteko planteamendua azaldu du.

Osoko bilkurak gaia aztertu du eta, ikusirik egin nahi den eskailera bide publikoari zuzenean ematen ez duela eta, gainera, lurzati pribatuan kokaturik dagoela bere osotasunean, bideragarritzat jo du planteaturiko eskailera egitea.



ARANTZAKO UDALA

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- Onespena ematea Luis Iparraguirre Salaverriak 5. poligonoko 830. lurzatiko etxebizitza kanpoko aldean eskailera egiteko aurkezturiko planteamenduari.
- 2.- Berariaz ohartaraztea sustatzaileari honako akordio hau ez dela obra baimen bat. Horrela bada, dagokion obra baimena jasotzeko beharrezko espedientea izapidetu beharko da.
- 3.- Sustatzaileari jakinaraztea dagokion obra baimena izapidetzeko, arkitektoen elkargo ofizialak bisaturiko memoria teknikoa aurkeztu beharko duela.
- 4.- Akordio hau sustatzaileari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

8. ALBERTO FAGOAGA LEITZAK ETA MAITE LATASTE ELIZALDEK 5. POLIGONOKO 440. LURZATIKO ETXEBIZITZAKO KANPOKO ALDEAN ESKAILERAK EGITEKO AUZIAREN INGURUKO ERABAKIA.

Andoni Mitxelenak, hirigintzako zinegotziak, Alberto Fagoaga Leitzak eta Maite Lataste Elizaldek 5. poligonoko 440. lurzatian kokaturik dagoen etxebizitzako kanpoko aldean eskailera egiteko planteamendua azaldu du.

Osoko bilkurak gaia aztertu du eta, ikusirik egin nahi den eskailerak bide publikoari zuzenean ematen ez duela eta, gainera, lurzati pribatuan kokaturik dagoela bere osotasunean, bideragarritzat jo du planteaturiko eskailera egitea.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- Onespena ematea Alberto Fagoaga Leitzak eta Maite Lataste Elizaldek 5. poligonoko 440. lurzatiko etxebizitza kanpoko aldean eskailera egiteko aurkezturiko planteamenduari.
- 2.- Berariaz ohartaraztea sustatzaileei honako akordio hau ez dela obra baimen bat. Horrela bada, dagokion obra baimena jasotzeko beharrezko espedientea izapidetu beharko da.
- 3.- Sustatzaileei jakinaraztea dagokion obra baimena izapidetzeko, arkitektoen elkargo ofizialak bisaturiko memoria teknikoa aurkeztu beharko duela.
- 4.- Akordio hau sustatzaileari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

9. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.



ARANTZAKO UDALA

Bertze aztergairik izan gabe, 17:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

2024.07.11
2 10:02:26
+02'00'

Saturnino Larralde Ibarrola

**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**

Data:
2024.07.11
15:49:20 +02'00'

Nagore Madariaga Iriarte